

Bola-jokoan neurtuko dira Zeanuriko kofradiak Alzustan San Migel egunean

Urri lehenengoaren 29an, San Miguel egunean, Alzustako bolatokian jokatuko da Zeanuriko kofradien arteko bola txapelketea. Udalerria osatzen dabena zazpi kofradietako ordezkariak izango dabe taldeka jokatzen dan txapelketa horretan parte hartzeko aukerea: Altzuak, Alzustak, Asterriak, Ibarguenek, Ipiñaburu-Undurragak, Otzerinmendik eta Uribek.

Taldea 4 bolarik osatuko dabe, bolari bakotxak 6 jaurtiketa egingo dauz, eta taldekide guztiak botatuko txirloen batuketea hartuko da kontuan; beraz, txirlo gehien botatzen dauan taldea izango da irabazlea eta bardinketa egongo balitz, *gerrea* jokatuko litzateke.

Alberto Zuluagarentzat bakarkakoa

Aurtengo udan, bakarkako hiru txapelketa jokatuko dira Zeanuriko: Alzustan, San Justo eta San Lontzon eta toki bakotxean sailkatu ziran lehenengo hiru bolariak hartu eben parte Zeanuriko bakarkako txapelketan, San Lontzo bigarren egunean. Irabazlea, Alberto Zuluaga otzerinmenditarra izan zan eta bigarren eta hirugarren tokietan Inazio Goioaga eta Juantxo Ozerinjaruregi sailkatu ziran.

Bola jokoa desagertzeko arriskuan

Bola jokoa Arratiako eta euskal kulturako beste hainbat gauza lez, desagertzeko arriskuan dagoala ikusiz, bultzakadaxoa emon gura deusoe antolatzaileak txapelketari. Gaur egun bola jokoa udan eta auzune gitxi batzuetako jaietan bakarrik jokatzen da, gazteen parte hartze txikiagaz. Beraz, desagertzeko arrisku larrian dagoan kirol herrikoi honen biziraupena eta gazteak erakartzea bilatzen dabe antolatzaileak. Juantxo Ozerinjaruregi, antolatzaileen ordezkariak dinoanez, “aurten be umeentzat txapelketea antolatu gura dogu, eta umeen taldeak osatzeko ahalegin bat egin behar dogu, ia animatzen diran eta gure-gurea dan kirol bateri, boleari, ez deusogun desagertzen ixten”. Horretarako, kofradien arteko txapelketea hasi aurretik, umei bolan jokatzeke eta kirol hau ezagutzeko aukerea eskainiko jake.

Babeslea eta laguntzailea

Kofradien arteko txapelketa hau antolatzea ezinezkoa izango litzateke erakunde eta enpresa pribatuen laguntza barik, eta Zeanuriko Udalaren babesa eta Alzusteko kofradiaren eta Alzustan bertan dagoan Ellauri Hoteleko *Kiloterdi Txokoaren* laguntzea izango dau.

Sariak honako honeek izango dira: talde irabazleak 200€ eta kilo eta erdiko bi txuleta bere osagarriakaz bakaltzeko edo afaltzeko aukerea izango dau *Kiloterdi Txokoan*, Ellauri hotelaren jatetxean. 2. saria: 120 €koa izango da eta 3.a 100 €koa. 2017an Ibargueneko taldeak jantzi eban txapela.

Beraz *eskuzuloak, txorra, sinka, hirukoa, txakile, zubile, txirloa, arrapea...* eta bola-jokoagaz zerikusia daukien beste berba batzuk entzuteko aukerea izango da Alzustako bolatokian urria lehenengoaren 29an, arrastiko 17:30etik aurrera.